

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

LEZOKO UDALA

Lezoko larrialdiko etxebizitzaren araudiaren hasierako onarpena.

Udalbatzarrek, 2025/11/27an egindako ohizko bilkuran, Lezoko larrialdiko etxebizitzaren araudia hasiera batez onartu zuen.

Ondoren aipatzen den moduan jendaurrean jartzen dira:

a) *Aztergai dagoen lekua:* Gizarte Zerbitzuak (Donibane kalea, 16) eta www.lezo.eus.

b) *Aztertze eta, hala balegokio, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko epea:* Hogeita hamar lanegun, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita.

c) *Erreklamazioak edota iradokizunak aurkezteko lekua:* Udaletxeko Erregistro Nagusia, 8:30etik 13:30era, astelehenetik ostiralera edo telematikoki www.lezo.eus helbidean. Halaber, Herri-administrazioen administrazio-prozedura erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatzen dituen lekuetan ere aurkez daiteke.

d) *Jasotzen dituen organoa:* Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazioz edo oharpenik jaso gabe, behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu gabe.

Denek jakin dezaten ematen da argitara iragarki hau eta ondoko legea kontuan hartu da: Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 49. artikulua.

Lezo, 2025eko abenduaren 1a.—Mikel Arruti Salaberria, alkatea. (8304)

AYUNTAMIENTO DE LEZO

Aprobación inicial del reglamento del piso de emergencia de Lezo.

El Pleno del Ayuntamiento Pleno, en sesión ordinaria celebrada el 2025/11/27, ha aprobado inicialmente el reglamento del piso de emergencia de Lezo.

La mencionada aprobación se expone al público de la siguiente forma:

a) *Lugar de exposición:* Servicios Sociales (c/ Donibane, 16) y www.lezo.eus.

b) *Plazo para examinar, y en su caso, para presentar reclamaciones y sugerencias:* Treinta días hábiles a partir del día siguiente también hábil al de la publicación del anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

c) *Oficina para presentación de reclamaciones y/o sugerencias:* El Registro General del Ayuntamiento, de 8:30 a 13:30 horas, de lunes a viernes o telemáticamente en www.lezo.eus. Así mismo también podrán presentarse en cualquiera de los lugares a los que se refiere el artículo 16.4 de la Ley 39/2015 de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

d) *Órgano ante el que se presentan:* El Pleno del Ayuntamiento.

Si transcurrido el plazo de información expresado no se hubiera presentado reclamación u observación alguna, se tendrá por aprobado definitivamente sin necesidad de adoptar nuevo acuerdo.

Lo que se hace público para general conocimiento, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 49 de la Ley de Bases de Régimen Local.

Lezo, a 1 de diciembre de 2025.—El alcalde, Mikel Arruti Salaberria. (8304)